

{ analisia } Omar H. Rahman

Apartheida eta Trump

Donald Trump AE-Betako presidentek eta Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak Etxe Zurian, Washingtonen, eman zuten ezagutzera “Mendeko Hitzarmena”. Analista askok nabarmendu dute dokumentua bi agintariek bizi duten egoera politiko zailaren erdian aurkeztu izana, hitzarmenaren beraren helburua alde batera utzita.

Urte askoan, Israelen lurralde palestinarren okupazioa babestu izan du, moralki eta politikoki justifikaziorik ez duen posizio batetik. Orain, berriz, Ameriketako Estatu Batuek babiatzen da okupazioaren defentsarako. Herriar juduak Zisjordanian kokatzeko Israelgo Estatuak egin duen ahalegin etengabeak Palestinako lurralde historikoa bi zati independenteetan banatzeko edozein aukera zapuztu egin du, eta modu horretan milioika palestinar aberrigabe bihurtu ditu, erregimen militar amaiezin baten menpe bizitzera zigortuta, eta inolako eskubide zibil zein politikorik gabe.

Trumpen «hitzarmena» Palestina historiko osoa israel-darren subiranotasunaren barruan uzteko diseinatuta dago. Aldi berean, Israelen bereganatzen dituen desiragarriak iruditzen zaizkion zatiak. Pa-

Erasoak, zaurituak, hildakoak, atxilotuak... Palestinarren etxeak hauts bihurtuta. Zisjordanianko C eremua Israelen bereganatu dezan Trumpek egindako egitasmoak haserretu egin ditu palestinarren. Baina Israelen, aldeko ugari ditu apartheid sistemak.

lestinaren herritar gehienei autonomia mugatu bat eskaintzen zaie, ghetto bihurtutako artxipelago baten gainean. Palestinaren ezetz esango zutela jakinda, hasiera-hasieratik begi bistakoa zen «hitzarmenaren» helburua ez dela inoiz izan bake plan izatea, ekimen diplomatikoaren mozorroarekin aurkeztutako posizio dokumentua baizik. Garbi esanda, «hitzarmena», munduko estaturik indartsuenak defenditu ezin daitekeenari emandako babesa da.

Israelgo lurraldearen maximalistei beti falta izan zaie lurra bereganatzea eta bertan bizi direnen gehiengoari bo-

toa emateko eskubidea ukatzea uztartzeko plan garbi bat. Analista askok, baita begirale israeldar askok ere, aspaldi onartu zuten gauzak horrela egitea Apartheidaren Estatu bat zutitzeko errezeta dela: milioika lagun elkarrekin bizitzeko, baina modu ezberdinean, norberaren etnia edo nazioaren arabera. Estatu horixe sortu da, batez ere juduak ez direnek Israelgo Estatuaren mendean bizi direnen artean gehiengo osatzen dutelako.

Horrexegatik, Hegoafrikan orain hamarkada batzuk horrelako gobernantza sistema bat zutenean mundu osoak errefusatu egin zuela jakinda, zaila da Israelen 2020an hori

nolaz defenditzen duen ulertzea. Sistema hori babesteko Israelgo funtzionario batzuek egin dituzten ahaleginak barrugarriak dira, harrigarriak izateaz gain. Esaterako, 2017an, Bezalel Smotrich parlamentari eta ministroak –Juduen Etxea eskuineko alderdikoa– bere “Erabaki Plana” aurkeztu zuen: Israelen Zisjordanian osoa bereganatzea proposatu zuen.

Smotrichen orduan esan zuenez, hori ez litzateke apartheid izango, demokrazia modu bat baizik. «Judea eta Samariako (Zisjordanian) eremu guztietan ezarri daiteke Israelgo burujabetza, bertan bizi diren arabiarrei Knesset (Israelgo Parlamentua) aukeratzeko botoa emateko eskubidea lehen egunetik eman gabe eta demokrazia izaten jarraituta. Ez perfektua, baina demokrazia da, azken finean», idatzi zuen Smotrichen.

Bi aukera eskaini zien Israelen mendean geratzen ziren palestinarrei: herritar juduek dituzten eskubiderik gabe herritar bezala segi, ala etxea eta herrialdea utzi.

Israelgo kazetari batek «errendizioaren edo transferentziaren ultimatum» deitu zion planteamenduari.

Edonola ere, Smotrichen erantsi zuenez, Estatu judua ukiezina da edozein egoeratan, etniaren arabera bazterketa sistema lortzeko egitura zibil,


legal eta demokratiko berriak sortu behar badira ere.

Egitasmo eskandalagarri hori ez zaie zorakeria iruditzen Israelen bertan, inolako ondoriorik ez duten joera politiko erradikalak arau bihurtuta baitaude. Gaur egun, jarrera politiko guztietako funtzionarioek disimulurik gabe eskatzen dute Zisjordania beretzeko, Etxe Zuriaren laguntza dutela jakinda.

Giro horrek politikari belaunaldi berri bat eragin du. Eskuin Berria bezalako taldeek, inolako ironiarik gabe, «nagusitasun juduaren sistema» eskatzen dute. Iaz faxismoarekin txantxetan ibili ziren, «demokraziaren usaina» duela esanez. Israelgo erakunde demokratikoei, prentsa libreari, gizarte zibilari eta justizia administrazioari eraso egin diete.

Prozesu horren ondoren 2018ko uztailean Nazio Juduaren Estatuaren Legea aldarrikatu zen. Bertan esaten denez, Israelgo Estatuak menperatzen duen lurraldean juduek baino ez dute autodeterminazio eskubiderik.

Edonola ere, israeldar guztiak ez datoz bat. Batzuek esaten dute bidea aldatu beharrean dagoela Israel, beranduegi izan baino lehen. Arrakasta handirik gabe. Beste batzuek badakite Palestina



Gazako Khan Juniseko manifestariak beren oinetakoekin ematen diete egurra Trump eta Netanyahuaren erretratuei.
Said KHATIB | AFP

historikoa bereganatzeak apartheidak ekarriko duela, baina mugimendu hori oztopatzeko borondaterik ez dute. Horiek esaten dutenez, orain egin dezaketen gauzarik onena anexiorako nazioarteko babesa lortzea da.

Ez da harritzekoa, beraz, Israelgo politikako buru asko Washingtonen/Trumpen «hitzarmenari» babesa ematen egotea, bi hautagai nagusiak, Benjamin Netanyahu eta Benny Gantz, barne.

Orain arte egungo egoerak ezinezkoa zirudien. AEBetako gobernuek nazioarteko eremuan Israel babestu egin dute. Bakea adostuz gero, asentamenduak –kolonia juduak– bere mendearen edukitzea Israelen «eskubidea» dela esatera ere iritsi dira.

Baina orain Trumpek asentamenduen zilegitasuna zailtzarik gabe defenditu du. Esan du Jerusalem hiri osoan israeldarren burujabetza dela nagusi, baita Golanen ere, eta nazioarteko zuzenbideak esaten duena –kolonia guztiak legez kontrakoak direla– ukatu egin du. Ez da kasualitate hutsa: Trumpen egitasmo hori garatzen aritu diren hiru funtzionarioak asentamenduen aldekoak dira. AEBetako Gobernuan dituzten postuak israeldarren maximalismoa goratzeko erabiltzen ari dira. Eta hori egin dute Israel Handiaren aldekoekin, Israelgo eskuinarekin, koordinatuta.

Israelek aurki defenditu beharko du Apartheidaren Estatu berezia sortzea. AEBak alde izatea urrats handia da. Nazioarteko ordenaren ahul-

tasunak lagunduko dio. Nazioarteko erakundearen eta zuzenbidearen hustuketak ere bai. Baita palestinar politikaren erabateko kolapsoak ere. Zer egingo du nazioarteko komunitateak, hain ahul egonda? Bigarren Mundu Gerraz geroztik nazioarteko komunitatea eraikitzeke nagusi izan diren printzipioak babesteko prest egongo al da?

Gauza bat oso garbi dago: lurrraren eta burujabetzaren inguruko borroka bat izate-tik, gatazka berdintasunaren eta eskubide zibilen aldeko borroka izatera pasako da. Aro berri honetan, seguru asko, gainerako herrialdeek beren posizioak aztertu beharko dituzte berriaz. Trump Administrazioak dagoeneko egin du bere azterketa.